

noaua



TXOKOALDEAREN MUGIKORTASUN BEHARRAK EZAGUTZEKO INKESTA BAT EGINGO DU UDALAK

Erantzunak Erroizpen eta Txokoargin jarritako buzoietan utzi beharko dituzte, irailaren 25a baino lehen / 13

**Udarregiko
Bertsolaritza Eskolan
izena emateko
aukera irekia da** / 06

**Errausketaren aurka
Kontxan eginiko
giza katea iruditan
jaso dugu** / 12

**Santuenean
auzoko jaiak
noiz hasiko zain
dira** / 16

**Usurbilgo altxorak
ezagutzeko aukera
berri bat izango da
asteburu honetan** / 18

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

5. URTEURRENA!

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAQATIK!

SALEROSKETA & ALOKAIUA

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

NOAOA
BIDAIAK




Japón

IRTEERA 2025eko martxoan

Noaoak gidatutako talde bidaia.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

JARRAI IEZAGUZU
SARE SOZIALETAN



www.noaua.eus



@noauaastekaria



@noaua



Noaua Aldizkaria



@noauatb

ANDATZA TABERNA

*Irekiera
berria!*

INAUGURAZIOA

Irailak 15ean 18:00tan

*Animatu zaites
gurekin ospatzera!*

**EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK**

8:00-20:30 Asteleheneretik - Asteazkenera **BAZKARIAK**
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera **BAZKARI eta AFARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

"Bat eginez independentziara"

Iazko irailean, Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteen espetxeratzea salatzeke eginiko ekimenetan 133 kide identifikatu eta 290.500 euroko isunak heldu zitzaizkien guztira. "Ernairen jardun politikoa hipotekatzea helburu duen eraso da hau", salatu du Ernaik. Testuinguru horretan, "gazte borroka geldiezina" dela aldarrikatu zuten, "bat eginez independentziara" aldarripean, iragan igandean Donostian egindako mobilizazio jendetsuan. Hainbat atxikimendu jaso zituen deialdiak, tartean, baita gazte usurbildarrena ere. Sare sozialen

bidez jakinarazi zuten, "aldarriz jantzi ditugu herriko hormak, autobus geltokiak eta tabernak hilabete hauetan. Agerraldiak, mural margoketak, planak, pankartak, zerrendak, kafeak. Usurbilen ere badago ameslarien belaunaldi berri bat, olatuan altxatuko dena igandean", iragarri zuten. Usurbildik Donostiara elkarrekin joateko deialdia egin eta ondoko talde argazkia atera zuten mobilizazioan parte hartu aurretik.

Antolatzeagatik jazarriak
Usurbilen ekaina amaieran eginiko agerraldian herri mai-



Usurbildar gazte ugari, Ernaik Donostian antolaturiko mobilizazio jendetsuan.

lako militanteek gogorarazi zuten, "militantzia independentista betidanik izan da jazarria Euskal Herrian, batzuk aurkakoa sinestarazi nahi badigute ere kolpatuak, bestelako herri batekin amets

egiteagatik eta horren alde borrokan egiteko egunero herri eta auzoetan antolatzeagatik". Oroitarazi zuten, "jasotzen dugun kolpe bakoitza bide zuzenetik goazelaren erakusle da".

Garbigune mugikorra, Aginagan

Irailaren 12tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Irailaren 19an osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

Kalezarko Andatza tabernak nagusi berria du

Abuztuan hamabost egunez itxita egon zen eta dagoeneko zabalik da. Astelehenetik asteazkenara, 8:00etatik 20:30era eta ostegunetik igandera, 8:00etatik 22:30era. Eguneko menua eskaintzen dute, igandean menu berezia eta ostegunetik igandera afariak ere bai.

II. Joan Mari Torrealдай beka deialdia martxan

"Euskal kultura azterketa gaur", hortxe kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzea xede duen Jakin Fundazioaren eta Usurbilgo Udalaren beka deialdiaren bigarren edizioa gaia. Interesdunek urriaren 21era arteko epea dute proiektuok aurkezteko. Informazio gehiago jakin.eus atarian.

Tenpora taldearen kontzerturako sarrerak salgai

"Ama" aurkeztuko dute hilaren 29an, 19:00etan Sutegin. Hasier Oleagak (bateria), Itsaso Etxebestek (baxua), Beñat Barandiaranek (gitarra), Juan txo Zeberio (teklatuak) eta Elene Arandiak (ahotsa) osatzen dute taldea. Sarrerak eskuragarri dituzue usurbilkultura.eus plataforman.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aiaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

ZER DIYO?

ANDATZAZPI PASTORAL BARRUTIA

Aldaketak gure parroketan

Andatzazpiko kristau elkarteek, Lasarte-Oriako San Pedro Apostolua eta Arantzazuko Ama Birjina parroketan, eta Usurbilen Salbatore eta Asisko S. Frantzisko parroketan, iristen zaigun errealitate berria eta egin behar ditugun aldaketak ezagutarazi nahi ditugu.

Orain dela 9 urtetik hona, bi parroko izan ditugu, Ibon Alberdi eta Juan Luis Murua, Andatzazpi Pastoral Barrutiko elkarten buru eta zerbitzari izan direnak.

Lasarte-Orian, Brijitarren Komentuko komunitatearen presentzia eta zerbitzua ere badugu, bere kapilau Felix Garitanorekin.

Uda honetan jakin dugu Ibon Alberdik ezin izango duela gurekin jarraitu. Gotzaindegitik, bere egoera aldatzea beharrezkoa dela uste dute. Beraz, Juan Luis Muruak jarraituko du lau parroketako parroko izanez. Felix Garitanok ere gurekin jarraituko du, Lasarte-Oriako monastegiko kapilau gisa.

Egoera berri honen aurrean, parroketako Kontseiluek irailaren 15ean, igandea, indarrean sartuko den mezen ordutegi berriaren berri eman nahi dugu:

Mezak

Egoera berri honen aurrean, parroketako Kontseiluek irailaren 15ean, igandea, indarrean sartuko den mezen



"Uda honetan jakin dugu Ibon Alberdik ezin izango duela gurekin jarraitu".

ordutegi berriaren berri eman nahi dugu:

Larunbatetan:

- 19:00 San Pedron, Lasarte-Orian.

Igandetan:

- 10:00 San Frantziskon, Aginagan.
- 11:30 Salbatoren, Usurbil.
- 12:30 San Pedron, Lasarte-Orian.
- 12:30 Arantzazuko Ama Birjina, Lasarte-Oria (eukaristia

"EGOERA BERRIA DA ETA EGOKITUZ JOAN BEHARKO DUGU KRISTAU ELKARTEARI AHAL DEN ARRETA ETA ZERBITZURIK ONENA ESKAINIZ"

edo apaizik gabeko ospakizuna, jaunartzearekin).

Egunero 11:00etan Brijiten komentuan eukaristia ospatzen jarraituko dugu.

Meza guztiak bi hizkuntzetan ospatuko dira, nahiz eta modu ezberdinetan.

Hiletak

Hiletak parroketan egiteko moduan ere eragina izango du. Astean bi egunetan egin ahal izango dira erkidego bakoitzean (Lasarte-Oria eta Usurbil-Aginaga), egun horietan hildako pertsonen aldeko hileta-elizkizunak eginez.

Lasarte-Orian:

- Astelehenetan 18:00etan izango dira Arantzazuko Ama parrokiaren, eta ostiraletan 19:30ean San Pedro parrokiaren.

Usurbil-Aginagan:

- Astelenean 19:30ean Salbatoren. Ostegunetan 19:30ean Salbatoren edo San Frantziskon (Aginagan).

Beilatokia, hilerria

Beilatokian edo hilerrian otoi-tzarekin agurtu nahi dituzten familiek parrokiarekin jarri ahal izango dira kontaktuan 639 028 861 telefono zenbakira deituz.

Edozein zalantza edo behar izanez gero, nahi duen pertsona orok zenbaki berean hitz egin dezake. Egoera berria da eta egokituz joan beharko dugu kristau elkarteari ahal den arreta eta zerbitzurik onena eskainiz.

Eskerrik asko guztioi.

1969ko kinto bazkaria

Urriaren 26an ospatuko dute Patri jatetxean. "50 euro sartu behar dira Rural Kutxako ES32 3008 0259 154771916121 kontu korrante zenbakian, norberaren izen abizenak adieraziz. Izena emateko azken eguna urriaren 19a izango da. Egunean bertan Mahaspildegia elkartearen (Atxegalde) egin-gu dugu hitzordua eguerdiko 12:30ean".

Harremanetarako email bat ere luzatu dute: iarroni@gmail.com (Iñigo Arrona).


Esperientzia Eskolan eta oroimen tailerren izena emateko epea zabaldu dute

Udaleko gizarte zerbitzuek Matia Institutuarekin lankidetzan antolatutako Esperientzia Eskola 55 urtetik gorakoei zuzendua dago. "Lan mundutik erretiroa hartu eta ikasteko grina duen orok eman dezake izena", Udaletik azaldu dute-nez. Astearteetan izango dira saioak, 16:00-18:00 artean.

Bestalde, oroimen tailerra ere antolatu dute Udalak eta Lahar elkargoak, memoria landu nahi duten adineko pertsonentzat.

Irailaren 25a baino lehen

Ikastaro hauetan irailaren 25era arte eman ahalko da izena gizarte zerbitzuetan (astelehenetik ostiralera 9:00-14:00 artean asteazkenetan ezik edo 943 377 110 telefono zenbakian).





Aurreko ikasturtean begirale eta zuzendari ikastaroa euskaraz egin zutenek dirulaguntza eskatzeko aukera izan zuten. 21ek eskatu dute. ARGAZKIA: AIURRI

Zenbait udal dirulaguntzen ebazpenak, behin betikoak

Hainbat dirulaguntza deialdien ebazpenak kaleratu zituen abuztuaren 12an Usurbilgo Udalak. Alegazio epea igarota, behin betiko onartu dituzte.

Euskara ikasten aritu direnentzako dirulaguntza

Iragan 2023-24 ikasturtean euskara ikasten aritu zirenei zuzenduriko dirulaguntza deialdia plazaratu zuen uda aurretik Usurbilgo Udalak. Eskabideak aurkezteko ekainaren 17tik 28ra finkaturiko epealdiaren baitan, "40 lagunek egin zuten dirulaguntza-eskaera, denera 41 ikastarotarako", Udaletik aditzera eman dutenez. Eskaera hauen guztien ebazpena kaleratu zuen Udalak abuztuaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Guztira, 22.033,21 euroko laguntza banatuko duela iragarri zuen.

Ebazpena behin-behinekoa zen. Abuztuaren 13az geroztik zenbatzen hasita, 10 laguneko epea izan zuten interesdunek alegazioak aurkezteko. "Aipaturako epean alegaziorik aurkeztu-

ko ez balitz, ebazpen proposamen hau finkoa izango da", ohartarazi zuen Udalak. Halaxe izan da, eta, beraz, aipatu ebazpena irmoa da jada.

Gogoan izan, Usurbilen euskara doan ikasi daitekeela. Izan ere, Udalak matrikulazio gastuen ehuneko ehuna diruz laguntzen du, ezarriak dituen baldintzak betetzen dituztenen kasuan; besteak beste, 16 urtetik gora izatea, Usurbilen erroldatua egotea, ikastaro osoan zehar %80ko asistentzia izatea edota gutxienezko aprobetxamendua gainditzea.

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz egindakoentzako dirulaguntza deialdia

2023-24 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz

egindakoentzako dirulaguntza deialdia plazaratu zuen Udalak uda aurretik. Ekainaren 17tik 28ra eskaerak aurkezteko aukera izan zuten interesdunek. Epealdi horren baitan, 21 eskaera aurkeztu zituzten. Guztira, 3.491,25 euroko laguntza banatzea erabaki du Udalak. Abuztuaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez Udalak plazaraturiko ebazpen hori behin-behinekoa izan zen. Hilaren 13az geroztik hamar eguneko epea zuten interesdunek alegazioak aurkezteko. "Aipaturako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, ebazpen proposamen hau finkoa izango da", Udaletik ohartarazi dutenez. Hala gertatu denez, behin betikoa da jada ebazpen hau.

Kasu honetan, matrikula gastuen erdia diruz laguntzen du Udalak, gehienez 250 euroko laguntza ematen du. Horren onuradun izateko, ordea, zenbait baldintza bete behar izaten dira; besteak beste, Usurbilen erroldatua egon eta 16 urtetik gora izatea, egindako ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea edota ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea.

Etxebizitzen alokairurako 2024ko dirulaguntza deialdia

Urtarrilaren 19an plazaraturiko deialdiaren baitan, zapi eskaera aurkeztu zituzten herritarrek. Lau eskabide onartu zituzten, beste hiru ez. Behin betiko ebazpena, iragan abuztuaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Usurbilgo Udalak.

Euskara errefortzuko klaseetan matrikulatzeko aukera

Eskolaz kanpo, euskara barneratu eta sendotzeko doako errefortzu klaseak eskainiko ditu ikasturte honetan ere Usurbilgo Udalak hiru ikastetxeekin batera (Udarregi ikastolak eta Aginaga zein Zubietako eskolek) behar baino maila apalagoa duten 6-16 artekoentzat. Zerbitzu hau Ttakun Kultur Elkarteak eskainiko du urritik aurrera. Iaz bezala, zerbitzu hau lizitatzeko prozedura bideratu du Udalak uda partean eta iazko kudeatzaileek eskuratu dute esleipena.

Bigarren urtez eskainiko dituzte klaseok. "2023-24 ikasturtean egin zituzten estreinakoz, eta emaitzarekin pozik, aurten ere saioak eskaintzea erabaki dute", azpimarratu dute antolatzaileek.

Izen-ematea zabalik dute interesdunek irailaren 20ra arte, bideotatik: zerbitzuak@ttakun.eus / 650 45 93 54. Egitasmo honen sustatzaileen esanetan, bospasei talde sortzeko beharra egon daiteke. "Eskolaz kanpo euskara barneratu eta sendotzeko beste espazio bat ematea izan da saioen muina". Sendotze lan hau bideratzen dute astero egiten dituzten ordu eta erdiko bi saioetan, "ahozkotasuna eta jolasa oinarri hartuta". Iaz bezala, "ikastetxeek identifikatuko dituzte saiook baliozgarri izango zaizkien ikasleak, eta parte hartzera gonbidatuko dituzte. Horrez gain, herriko ikastetxeetan eskolatuta ez daudenek ere parte hartu ahal izango dute, betiere mailaketa-probaren baitan".





Lierni Rekondo bertsolari lasartearrak gidatuko du Udarregiko Bertsolaritza Eskola. TXINTXARRI

"Bertsolaritza Eskolan izena emateko ez da inolako oinarririk behar"

LIERNI REKONDO UDARREGI IKASTOLAKO BERTSO-IRAKASLEA ETA BERTSOLARIA

Guraso talde baten ekimenez, Udarregiko ikasleek Bertsolaritza Eskolan aritzeko aukera dute. Asteaz behin eta ordubetez. Bertsoaren mekanika ezagutzeaz haratago, bestelako onurak ere baditu eskola honek. "Orain ez dit hainbeste beldurrik ematen jendaurrean aritzeak", ikasle bati baino gehiagori entzun dio antzeko esaldia Lierni Rekondo lasartearrak.

Baten batek pentsa dezake dohain berezi bat behar dela Bertsolaritza Eskolan izena emateko. Baina ez da horrela. Interesa duen edonork har dezake parte, ezta?

Hori da. Udarregi ikastolako Bertsolaritza Eskolan denontzako aukera dago. Haurrak direnez, helburua batez ere hitzekin jolastea da, hizkuntzaren ludikotasuna lantzen da.

Ez dute inolako oinarririk behar Bertsolaritza Eskolan apuntatzeko.

Bertsolaritza Eskolaren helburua zein da? Bertsolari berriak sor-

tzea ala gazteak bertsolaritzara hurbiltzea?

Tradizionalki, Bertso Eskolak bertsolariak formatzeko tokiak izan dira. Baina bertsolariak ez ezik, bertsozaleak edota literaturazaleak sortzea ere oso inportantea dela uste dugu.

Bertsoa oso eremu librea da, sormenetik abiatzen dena. Bideaz gozatzea da helburua eta ez horrenbeste bertsolariak sortzea.

Zuzenean ala zeharka, Bertsolaritza Eskolak bestelako dohainak indartzeko balioko du: jendaurrean aritzea, sormena

garatzea edota ahozkotasanean trebatzea.

Bertsolaritzak eremu asko biltzen ditu bere baitan eta gauza asko landu daitezke bertsolaritzaren bitartez. Hizkuntza-gaitasuna hobetzeko balio du, diskurtsoa lantzea

"BIDEAZ GOZATZEA DA GURE HELBURUA, ETA EZ HORRENBESTE BERTSOLARIAK SORTZEA"

ahalbidetzen du eta emozioen kudeaketan ere oso lagungarria da. Gaztetxo askok esan izan didate "orain askoz lasaiago egiten ditut eskolako aurkezpenak", edota "orain ez dit hainbeste beldurrik ematen jendaurrean ateratzeko". Hausnarketa-gaitasuna lantzeko ere oso baliozgarria da.

LH5, LH6 eta DBHko ikasleei zuzendua dago. Denak batera aritzen dira ala mailaka ematen dituzu eskolak?

Printzipioz, denak batera hasiko dira. DBHkoek badute oinarri bat, LHkoak aldiz lehen pausoak ematen ari dira, baina oso polita da denen artean sortzen den giroa. Eta ederra da nola laguntzen dioten elkarririk. Adin bakoitzak aportatzen du zerbait eta niretzat oso positiboa da hori.

Urrian hasi eta maiatzean amaituko da Bertsolaritza Eskola. Zein da jarraituko duzun metodologia?

Bi eremu ezberdin lantzen ditugu. Batetik, bertsolaritzaren ekosistemari dagokion kultura lantzen dugu: bertsolariak, bertso historikoak, txapelketak... Bestetik, sorkuntzan zentratzen gara: errimak, doinuak, bapatekotasuna...

Bertsolaritza Eskola erabat ludikoa da, eta metodologia bapatekotasanari eta ahozkotasanari bideratuta dago.

laz hasi zinen bertso-irakasle bezala Udarregi ikastolan. Aurtengoa bigarren ikasturtea izango duzu. Zer nolako harrera egin zitzaizun iaz?

Egia esan, oso gustura egon nintzen. Ikasle taldea oso jatorra izan zen eta oso gustura aritu ginen elkarrekin lanean. Gainera, Bertsolaritza Eskola kudeatzen duen guraso taldeak eta Udarregi ikastolak babes handia eman zidaten niri, irakasle bezala, baina baita Bertsolaritza Eskola berari ere.



Iaz talde hau osatu zen Udarregin. Erdian da Lierni Rekondo bertso-irakaslea.

Bertsolaritza Eskolako izen-ema-tea zabaldu berri da. Zalantzan diren gazteei, edo gazte horien gurasoei, zer esango zenieke?

Etortzeko eta probatzeko esango nieke. Aurreiritzi handiak daude Bertso Eskolen inguruan. Badirudi gaitasun bereziak eduki behar dituzula Bertso Eskolara etortzeko eta ideia hori oso urruti dago errealitatetik. Etor daitezela eta probatu dezatela.

Txapelketa garaia da. Horrek eraginik izango al du zuen astelehenetako saioetan? Nola-

"ZALANTZAN DAUDENEI ESANGO NIEKE ETOR DAITEZELA ETA PROBATU DEZATELA"

baiteko jarraipenik egingo diozue, ezta?

Noski baietz. Normalean txapelketak tokatzen direnean, saio horiek baliatzen ditugu ikasleekin batera bertsolaritzaren inguruko ekosistema lantzeko eta txapelketek nola funtzionatzen duten aztertzeko.

"Emakume batek irabaztea nahi nuke"

Bertsolari eta bertsozale bezala, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa noiz hasiko zain izango zara, ezta?

Bai, gainera lehen aldia da Bertsozale Elkartearen lanean arituko naizena eta, horri esker, txapelketa barrutik bizitzeko aukera izango dut. Euskal Herrikoan ere lanean aritu nintzen eta oso oroitzapen polita dut. Bertsolaria eta

'bertso-frikia' izateaz gain, barruko tripa guztiak ikusteko aukera izateak ere bere xarma du.

Final-zortzirenak hasiko dira aste honetan. Hortaz, asko gertatzen da oraindik. Dena den, faboritorik ba al duzu?

Bertsolari kuttun asko daukat eta badut norbait buruan, baina oraingoz nahiago dut ez bustitzea. Hori bai, emakume batek irabaztea nahiko nuke, eta badira batzuk txapelaren azpian egon daitezkeenak lasai asko.

"GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA BARRUTIK BIZITZEKO AUKERA IZANGO DUT"

Bertsolaritza Eskolan izena emateko garaia da

Aurten ere, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH5, LH6, eta DBHko ikasleentzat.

Astelehenero batuko dira Udarregi erai-kinean, eguerdiko 13:30etik 14:30era.

Eskolak urrian hasi eta maiatzean amaituko dira.

Guraso talde baten ekimena denez, interesa duen edonork telefono zenbaki honetara deitu behar du: 608 768 539 (Josu). 65 eurokoa izango da urte osoko kuota.

Iaz bezala, Lierni Rekondo izango da aurtengo bertso-irakaslea.

Uxue Fernandez, Elgoibarren

Asteburu honetan abiatuko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Bi herritar daude lehiakideen artean. Uxue Fernandez usurbildarra eta Asier Azpirotz zubietarra. Uxue izango da lehena abesten, irailaren 22an Elgoibar-ko Herriko Antzokian.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.


ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK
Instagram icon Facebook icon
943 36 91 39

 **943 36 11 82**
EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL

61. Enrike Abril errebote txapelketa jokatzaren hasia da

Zubietak iragan larunbatean jokatu zuen lehen neurketa Oiartzunen. Jardunaldi bereko beste partida asteburu honetan jokatu da.

Oiartzun, Villabona eta Zubietako plazetan jokatu dira partida hauek guztiak. Zubietan, esaterako, hirugarren jardunaldira arte, irailaren 29ra arte ez da neurketarik jokatu bertan, aipatu federazioaren egutegiaren arabera. Jardunaldiotako hitzorduen berri duzue segidan, ez dira behin betikoak. Ordutegi aldetik, aldaketak egon daitezkeela ohartarazi dute.



Asteburu honetan osatuko da lehen jardunaldia.

Lehen fasea urriaren 13ra arte

Bost jardunaldiz eta hamar neurketez osaturiko errebote txapelketa honen lehen fasea irailaren 15etik urriaren 13ra arte luzatuko dela aurreikusia dute. Aldaketarik ez bada, segidan jokatu dira azken faseari lotutako partidak. Zubietak ordezkarietza propioa izango du lehia honetan, aurreko edizioen antzera. Kanboarrak, Txost, Kapito Harri eta Luzean izango ditu aurkari.

61. Enrike Abril Lehen fasea

1. jardunaldia

Irailak 7, larunbata
10:30 Oiartzungo plazan:
Txost 9 -Zubieta 13.

Irailak 15, igandea
10:30 Villabonako plazan:
Kapito Harri-Luzean.

2. jardunaldia

Irailak 29, igandea
10:30 Villabonako plazan:
Kanboarrak-Kapito Harri.

Urriak 13, igandea
10:30 Villabonako plazan:
Luzean-Txost.

3. jardunaldia

Irailak 22, igandea
10:30 Oiartzungo plazan:
Txost-Kanboarrak.

Irailak 29, igandea
10:30 Zubietako plazan:
Zubieta-Luzean.

4. jardunaldia

Urriak 6, igandea
10:30 Oiartzungo plazan:
Kapito Harri-Txost.

Urriak 13, igandea
10:30 Zubietako plazan:
Kanboarrak-Zubieta.

5. jardunaldia

Irailak 22, igandea
10:30 Zubietako plazan:
Zubieta-Kapito Harri.

Urriak 6, igandea
10:30 Villabonako plazan:
Luzean-Kanboarrak.

Udalaren lan deialdi batean berriz izena emateko aukera

"C2 mailako operario laguntzaile (elektrikari laguntzailea) poltsa bat oposizio sistema bidez sortzeko" deialdiaren oinarriak kaleratu zituen Udalak abuztuaren 5ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Baina zenbait akats atzeman dituzte.

Irailaren 19ra arte zabalik

Horiek zuzendu eta deialdi horretan berriz izena emateko epealdia zabaltzea erabaki zuten irailaren 6tik 19ra. "Lehenengo epealdian izena eman zutenek ez dute berriz egin beharko", argitu dute Udaletik. Bigarren izen-emate epealdia igaro ondoren, "onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du udalak. Epaimahaia osatu eta horren berri ere emango du".

Udal elektrikariaren laguntzailea

Lanpostu horretako zeregina udal elektrikariari laguntzea izango da, besteak beste, zereginoan: udal instalazio elektrikoaren mantenua edota udalak behar dituen azpiegitura elektrikoaren prestakuntza.

Zati teorikoa eta praktikoa

Aurkezten diren hautagaiek, besteak beste, 16 urte beteak izan beharko dituzte, B gida-baimena edota 1. hizkuntza eskakizunari dagozkion euskara-ezagupenak frogatzen dituen agiria baita. "Lan poltsan sartzeko probak parte teorikoa zein praktikoa izango ditu: epaimahaia zehaztu behar du egun berean izango diren ala ez, eta noiz izango diren", udal iturriek aditzera eman duenez.

Aniztasun Kontseiluaren bilera, irailaren 19an

Azken hilabeteetan egindako lanak baloratu eta hurrengo urratsak izango dituzte hizpide, Udalak aurreratu duenez. "Jatorri aniztasunean eta elkarbizitzan sakontzeko interesa duen oro" gonbidatuta dago bertan parte hartzera.

Pelaeoenean egingo da bilera

Aniztasun Kontseiluaren bilera railaren 19an izango da, arratsaldeko 18:00etan Pelaeoenean (Kalezarren). "Herriko hainbat eragile eta norbanako biltzen dira, udaleko ordezkariekin batera, Aniztasun Kontseiluan, herrian zein herrikan kanpo jaiotakoak". Kontseiluak adierazi duenez, "deialdiak irekiak dira, eta jatorri aniztasunean eta elkarbizitzan sakontzeko interesa duen edonork parte har dezake bileretan".

Proposamen berriak

Harrera zerbitzua martxan jartzea, ongi etorri gida berri-zea eta mentoretza soziale-rako HarEman programa abiatzea izan dira Aniztasun Kontseiluak bultzatutako lan nagusiak.

Etorri berrientzako euskara hastapen ikastaroa ere antolatzen du Udalak, doan, herriko bizitzan txertatzeko lagungarri izan daitekeelakoan. Egitasmo hauei guztiei eutsiko diete. Hurrengo hilabeteetarako proposamen berriak ere landuko dituzte Aniztasunaren Kontseiluan.

Mundualdiaz ere jardungo dute

Irailaren 19ko bileran herriko jatorri aniztasuna ospatzea helburu duen Mundualdiaz ere jardungo dute.



Jaien atarian, jolasean aritzeko aukera ugari izan zituzten aurreko igandean.



Trebetasun jolasetan parte hartzen auzoko haurrak.

Ikasturte hasiera ospatu dute Santuenean

Ikasturte hasiera ospatzeko jaia egin zuten igandean Santuenean. Ikasturte berria besoak zabalik hartzeko, eta auzoko jaiak iritsi bitartean,

poza eta umorea plazaratu dituzte santuenean.

Goizean trebetasun jolasak egin zituzten auzotar txikienek, ordu pare batez erabat neka-

tu bitartean. Ondoren, bakoitzak etxetik ekarrita, talde handian bazkalduzuten denek, eta arratsaldean, Ttipika taldearekin dantzaldia egin eta

abesteko aukera bikaina izan zituzten txikienek. Orain prest dira auzotarrak ikasturte berriari indarrarekin heltzeko jaiak iritsi bitartean.



Bazkaria egin zuten frontoian haur eta gurasoek.




Ttipika taldearekin dantzan ibili ziren txikiak eta helduak.

Lehen postuetan amaitu ditu Nahia Zudaire Borrezok Paralinpiar Jokoak

Zubietako igerilaria lehen postuetan sailkatu da jokatu berri dituen Parisko Paralinpiar Jokoetan. Munduko onenekin lehiatu da Nahia eta abuztuaren 28tik irailaren 8ra bitarte izan dituen neurketa guztietan lehen zortzi sailkatuen artean amaitu du. Pozarren agertzen Nahia, azkeneko neurketa jokatu berritan. "Oso pozik. Esperientzia bizitzea eta giro honekin igeri egitea pasada bat da. Orain ikusiko dugu

denbora baina orokorrean lan txukuna egin dugula uste dut", adierazi zuen. Hemen bere emaitzak:

- Estiloetako 200 metroko proban: zortzigarren postua.
- Estilo libreko 400 metroko proban: zazpigarren postua.
- 4x50 metroko errelebo mistoko proban: seigarren postua.
- Bular erako 100 metroko proban: laugarren postua.
- 4x100 metroko errelebu proba: zazpigarren postua.



Nahia Zudaire Borrezok Paralinpiar Jokoetan. Argazkia: Bat Basque Team.



Maider Galardik eta Nahia Intxaustik hitzaldia eskaini zuten minbiziak eta feminismoaz.

"Dolu prozesuan, isiltasun harresiek ez dute batere laguntzen"

I. Iñurri Eguna ospatu zuten larunbatean herriko frontoi inguruan. Minbizia duten pertsonak eta haien senitartekoekin lan egiten duen elkarte babestera jende ugari batu zen.

Larunbatean ospatu zuten Iñurri elkarteak antolatutako lehen Iñurri Eguna. Egitarau oparoa osatu zuten kide eta lagunak, eta jasotako harrera ezin hobea izan zen.

Goizean yoga saioarekin eta gosari osasungarri batekin hasi zuten eguna. Gero, Sute-gin hitzaldiak eskaintzen zituzten bitartean, serigrafia eta belarrirako tailerra egin zituzten Potxoenean. Ondoren, bazkaria osatu zuten frontoian, espazio osoa goraino beteta, eta postreerako aho gozagarri, Olatz Mercaderren bakarriketa. Arratsaldean, berri, kontzertuen tartea izan zen. Elektropottotek jarri zuen giroa lehenengo, eta Idoia Asurmendik emozioei bidea eman zien. Kontzertu ezin hunkigarriago batean, denetarik gonbidatuak bildu zituen

iñurriehi ahotsa emateko. Eñaut Elorrietarekin binakakoan ere aritu zen, eta iñurritxo bati pianoan hiru pieza jotzeko aukera eman zion. Negar malakoak atera zituen gogorrenen begietatik ere. Eñaut Elorrietak hartu zuen mikrofonoa ondoren, eta bakarkako ibilbidean zein Ken Zazpiren musika ezagunean oinarritutako kontzertua eman zuen. Azkenik, Rukulak hartu zuen oholtza eta dantzan jarri zuen jende guztia.

Hitzaldietako ahotsak

Hitzaldiak emateaz lehenik arduratu zen Maria Lopez Altuna sexologo eta ginekologoa. Sexualitatea izan zuen hizpide eta pazientearen sintomatologiatik haratago, emozio eta sentsazioak erdigunean jartzearen garrantzia azpima-

rratu zuen. Paziente bakoitza modu indibidualean artatu eta entzuteak pertsona horrengan eta inguruarengan izan dezakeen eragina aztertu zuen.

Ainara Urdapilletaren txanda izan zen ondoren. Psikologoak doluaren gaia aztertu zuen inolako taburik gabe, eta minbizi prozesuetan gertatzen diren doluak ekarri zituen mahai gainera. Ez bakarrik pertsona horren heriotzari lo-

tuta, baizik eta gaixorik dagoen pertsonak bizi dituen beste galera batzuei buruz ere bai: osasunarena, lanarena, rola-rena... Azken hamarkadetan, dolua alderdi pribatura pasa dela ohartarazi zuen psikologoak, lehen kultura eta erlijioak leku gehiago ematen baitzion gaiari eremu publikoan. Hala, denek espero dute 80 urterekin "goxo eta sufritu gabe" hiltzea, baina bizitzak bestelako kolpeak ere ematen dituela gogorarazi zuen Urdapilletak. Dolu desautorizatuak ere gogora ekarri zituen: maskotak, abortuak, maitaleak... "Dolu prozesua integratzeko zauria begiratu behar da", ekarri zuen gogora eta "isiltasun harresiek ez dute batere laguntzen", esan zuen ozen. Modu horretan, gizarteen daukagun "analfabetismo emozionala" lantzeko beharra azaleratu zuen.

Azkenik, Maider Galardik gidatuta, Nahia Intxausti EHU-ko irakaslea eta minbiziak duenak, feminismoaren ekarpenak aztertu zituzten minbizi prozesuetan. Zaintzaren gaia jarri zuten erdigunean eta gaixorik dauden emakumeen bizitzan eta inguruetan sortzen diren nahasmenduak azaleratu zituzten. Bitartean, "hil arte bizi!".

"GIZARTEAN DAUKAGUN 'ANALFABETISMO EMOZIONALA' LANTZEKO BEHARRA DUGU"



Yoga saioarekin hasi zuten eguna.



Gosari goxoa eta osasungarria egin zuten Dema plazan.



Belarritako tailerrak arrakasta ederra izan zuen.



Hiru hitzaldi ezin interesgarriago Sutegin.



Frontoi bete jende elkartu zen bazkarian.



Olatz Mercaderren bakarrizketa arrakastatsua.



Elektropottotte umorea eta parranda giroa jartzen.



Idoia Asurmendiren kontzertu benetan hunkigarria.

Erraustegia geratzeko giza katera lotu ziren

Erraustegia ixtea eskatu eta hondakinen kudeaketa sistema eraginkortzea galdegin zuten igandean Kontxan.

Zubietako erraustegia ixtea, ez bertan, ez Bergaran ezta beste inon ere hondakinak ez erraustea eta hondakinen kudeaketa eredu eraginkorra defendatzeko giza katea egin zuten igandean, estropaden azken jardunaldia jokoan izan zuten Kontxako badian. Errausketaren Aurkako Mugimenduak deitutako mobilizazioarekin bat egindakoen artean ziren, Donostia Bizirik, Larra mendiko Arnasa, CCOO, ELA, Eguzki, Ekologistak Martxan, Alternatiba eta EHBildu.

Zubietako erraustegia ixtea eskatu zuten, udaberriari To-

xicoWatch fundazioko iker-tzaileek kaleraturiko azken bost urteotako datu kezgarrien ostean. "Hasieratik eduki ditu hamaika matxura, oker, istripu, isurketa eta kutsatze", oroitarazi zuten. Haietako hainbat ezagutarazi dira, baina ez denak. "Erraustegiak 100 tona hondakin erreta 3 tona erraunts oso toxiko sortzen ditu... eta milaka tona horiek "zabor turismoa" egiten dute Gaztelako Santovenia de Pisuergaraino. Horiez gain, erraustegiak sortutako zepa edo eskoriek askoz tona gehiago osatzen dituzte eta horiek



Errausketaren aurkako aldarria, Kontxako estropaden jokaleku parean.

bazter guztietara bidaltzen dira Zubietatik, zabortegieta- ra edo zementu-fabriketara, azpiegitura handietan ezku- tatzeko. Eta milaka tona CO2

zabaltzen ditu atmosferan: erraustegia izango da Gipuzkoan klimaren aldaketa eragiten duen gai hori gehien airetzen duena". Errausketaren aurrean, "sistema hobe, garbiago eta merkeagoak" badaudela gogorazi nahi izan zioten bereziki Donostiako Udalarari. "Donostia da zabor turismoaren hiriburua eta Gipuzkoa osoaren lotsaizuna", salatu zuten.

"HASIERATIK EDUKI DITU HAMAIKA MATXURA, OKER..."



Euripean egin zuten Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren mobilizazioa.



Erraustegiaren aurkako giza katea, Kontxako estropaden jarraitzaileei begira.



Mobilizazioa Donostiako udaletxe paretik abiatu zen.



Errausketaren aurkako aldarriek hartu zuten igandean Kontxako itsasertza.



Moyua, Jaizubia eta Geotúnel enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteari (ABEE) esleitu zaizkio lan hauek.

Txokoaldeko zubia birgaitzeko lanen harira, bilera eta galdetegia

Aginaga aldean trenbidea bikoitzeko eta lurrazpiko tunela eraikitzeko obrak esleitu ditu Euskal Trenbide Sareak. 30,6 milioi euroko kostua izango du egitasmoak Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriko Sailaren esku dagoen ETS-k zehaztu duenez.

Lan hauek gauzatzeko 40 hilabeteko epealdia izango du enpresa talde honek. "Trenbide bikoitzean 1.329 metro luze izango den tunel bat eraikitzeak egungo ibilbidea laburtuko du eta Zarautz eta Donostia arteko maiztasunak bikoiztea ahalbidetuko du". Trazadura berriak kilometro eta erdi inguru laburtuko du egun, hein handi batean Oria ertzetik egiten duen bidea.

Bi minutuko aurrezpena

Egun, Orio eta Usurbil lotzen dituen tren zerbitzuak 9 minutu behar izaten ditu tarte honetako bidea osatzeko. Proiektu hau egikaritu ostean, bi minutu aurreztuko dira eremu horretan. "Lanak, funtsean, 1.329 metroko luzerako trenbide bikoitzeko meategi-tunel bat eraikitzean oina-

rrituko dira. Bi muturretan tunel faltsuko egiturak proiektatu dira, obra ingurunean integratzeko. Bilbo aldean 24 metroko luzera izango duen soluzioa diseinatu da, eta beste aldean, Donostiakoan, 30 metro izango ditu. Tunelak 371 metro luzeko larrialdietarako galeria bat ere izango du", ETS-tik azaldu dutenez.

Lan hauek trenen joan etorrrien maiztasuna handitzea eragingo dute. Egun, gehienez orduerdiko igarotzen da trena bertatik. Etorkizunean, ordea, ordu-laurdeneko zeharkatu ahalgo dute zonalde hau.

Gipuzkoa barruko loturak hobetzeko

Aginagako lan hau testuinguru zabalago baten kokatu ditu ETS-k. "Mugikortasun Jasangarriko Sailak inbertsio han-

dia bultzatu du Elgoibar eta Donostia arteko trenbide-azpiegiturretan, Gipuzkoako mendebaldeko kostaldearen eta hiriburuen arteko lotura hobetzeko. Gauzatutako proiektuen artean daude, besteak beste, Alzolako saihesbidea, Zumaiako zubiaren eraberritzea, herri horretan bertan geltokiaren birmoldaketa eta kotxetegiaren eraikuntza, Meagako tunelaren finkapena eta

"UDALAK ETXEZ ETXE BANATUKO DU INKESTA. IRAILAREN 25EAN AMAITUKO DA ERANTZUTEKO EPEA"

trenbidearen berrikuntza, Zarauzko San Pelaioko geralekuaren zaharberritze osoa eta terminal berriaren eraikuntza udalerrri horretan bertan".

Aurretik Txokoaldeko zubia birgaituko dute

Obra hauei ekin aurretik, ordea, ETS-k iragarri duenez, lehenbizi Txokoaldeko egungo zubia birgaituko dute. "Igarobidea 60 urte baino gehiago dituzten harlangaitzeko zutabeek eta lauza motako hormigoizko habeek osatzen dute. Hartutako soluzioa egungo taularen zeharkako sekzioa handitzean oinarrituko da, trenbideak 3,80 metroko zabalera izan dezan, eta espaloiak 2 metrokoa, galtzadaren eta oinezkoentzako gunearen arteko elementu bereizleekin".

Udaletik zehaztu dutenez, "oinezko, txirrindulari zein ibilgailu motordunentzat baliogarria izango da, eta 30 zm igoko dute. Aurreikuspenen arabera, zazpi hilabete behar dituzte horretarako".

Zubia berritzeko obra hauek auzoan izango duten eragina ahal bezainbat murrizteko aukerak aztertzeak dira Udala eta Txokoaldeko bizilagunak elkarrekin. Izan ere, Udaletik ohartarazi dutenez, "zutabeak izan ezik, zubia erabat eraitsiko dute, eta horrek ezinbestean baldintzatuko ditu auzotarren eguneroko joan-etorriak".

Horregatik, bi deialdiren berri eman du Udalak egunotan. Batetik, gai honi buruz auzokideekin hitz egiteko bilera deitua zuen hilaren 10era-ko bizilagunekin.

Horrekin batera, aipatu obren eragina ahalik eta txikiena izateko galdetegi bat ere martxan jartzekoak direla iragarri dute. "Udalak aste honetan banatuko du inkesta etxez etxe, eta bi asteko epea izango da erantzunak uzteko, irailaren 11tik 25era bitartean; Erroizpen eta Txokoargin jarriko dituzten buzoietan utzi ahal izango dituzte", berri eman dute.



Uztailaren 24an egin zuten udako etenaldiaren aurreko azken osoko bilkura.

Hainbat zerbitzu, azken osoko bilkurako hizpide

Taxi zerbitzua, Oiardo kiroldegia edota Orbeldiko presa hizpide izan zituen udalbatzak uztailaren 24an eginiko osoko bilkuran. Lerrotan duzue udal ordezkariak hartutako erabakiei buruzko xehetasunen berri.

Erregimen bereziko eremua

Taxi zerbitzua eskaintzen dutenen jarduera eremua zabaltzea ahalbidetuko duen eskaerarekin bat egin du Usurbilgo Udalak ere. Erregimen bereziko eremua sortzeko Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzenduriko eskaerarekin bat egin du herri honetako Udalak ere. Eskaera hau bideratzeko hainbat udalen arteko hitzarmenari aho bateko babesa eman zion udalbatzak uztailaren 24an egindako osoko bilkuran; Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria eta Donostia, udalherri hauetako guztietako udalen arteko akordioari hain zuzen. Beterri Buruntza, Oarsoaldea nahiz Gipuzkoako hiriburua arteko hitzarmen honen xedea,

Gipuzkoako Foru Aldundiari erregimen bereziko eremu bat sortzea eskatzea da, "bidaiariak turismo-ibilgailuetan garraiatzeko zerbitzuak emateko". Hau da, taxi zerbitzua hobetzea litzateke asmoa. Jakina da, inguruotan taxi zerbitzuak duen lizentzia kopuruak ez diola erantzuten egun dagoen beharrari. "Azkenaldian, udalek, auto-taxien lizentzien titularrek eta gizarte-eragileek gabeziak antzeman dituzte zerbitzuan. Zerbitzua ez da nahikoa egun eta ordu-tegi jakin batzuetan, arazoak handiagoak edo txikiagoak izanik udalherri arabera". Horren aurrean, bi aukera mahai gaineratu ziren; sektoreak nahi ez zuen lizentzia gehiago eskuratzeko aukera zabaltzea edota hitzarmen honen bidez sustatu nahi dutena, hitzarmen

honekin bat egin duten udalherrietako taxi zerbitzuak baliatzea inguruotako zerbitzua bera hobetzeko eta "eremu horretan ematen den zerbitzua harmonizatze aldera".

Jarduera eremua zabaltzeko aukera

Akordio honekin bat egingo duten udalek, hau da, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremu berriak "ahalmena emango die Udaletako au-

TAXI ZERBITZUAREN EREMUA ZABALTZEAREKIN BAT EGIN DU UDALAK

to-taxien lizentzien titularrei garraio-zerbitzuak eskaintzeko Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Pasaia, Oiartzun eta Errenteriako udalherrien barruan, bai eta udalherri horien artean ere, aintzat harturik hitzarmen honen zazpigarren akordioaren arabera onartutako egutegia". Izan ere, egutegia edota aplikatu beharreko tarifak zehazten ditu akordioak. Jarraipen Batzorde bat sortzea ere aurreikusten du.

Urtebeteko probaldia

Hitzarmenarekin bat egingo duten udalek "konpromisoa hartzen dute Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko kide izateko, gutxienez urte natural oso batean eremua martxan jartzen denetik, auto-taxien garraioan izan dezakeen hobekuntza ebaluatu ahal izateko".

Lau urteko epealdia izango du hitzarmen honek, beste lau urtez luzatu ahal dena, baina urtebeteko probaldia hasiteko. Hitzarmen hau bozkatu aurretik, uztailaren 24ko osoko bilkuran udal gobernu taldeak ohartarazi zuten, "tartea dugu egokitzapenik behar den ikusteko. Hitzarmen honetatik irteteko aukera" ere hor egongo dela gaineratu zuten. Gai honen lanketarekin hilabeteak daramatzatela berri eman zuen udal gobernu taldeak oporraldi aurreko osoko bilkura hartan.

Orbeldiko presa eta indarretxea

Otsailean hasieraz onartu, udaberrian jendaurrean izan eta inork alegaziorik aurkeztu ez ostean, udalbatzak behin betiko onespina eman zion uztailaren 24ko osoko bilkuran Orbeldiko presa eta indarretxea deskatalogatzeari. Erabaki honen bidez, orain arte Orbeldiko presari eta indarretxeari zuten babes etnografikoa kendu egingo zaie, hitza hartzeko udal taldeek izan

→ zuten tartean, udal gobernu taldetik nabarmendu zutenez, etorkizunean "presa eraitsi behar bada, deskatalogatuta uzteko".

Kiroldegiko bi zerbitzuren kontratazioa

"Prozedura ireki eta ohikoaren bitartez, Usurbilgo Oiarde kiroldegian kirol jarduera fisikoa eta ur sorospen zerbitzua kontratatzeko espedienteari onespena ematea" onartu zuen aho batez udalbatzak uztailearen 24ko osoko bilkuran. Horretarako, "jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea" ere aho batez babestu zuten udal ordezkariak. Kontratazio honen iraupena gehienez bost urtekoa izango da, hiru urtekoa gehi beste bi urtez luzagarria, guztira ia bi milioi eurokoa, baldin eta kontratazio hau bost urtera helduko balitz. Kopuru horregatik hain zuzen, kontratazio deialdi hau Europara zabalduko du Udalak. Kopuru horretan islatua dago hain zuzen, zerbitzuan izan den %40ko garestitze handia. Garestitze horren arrazoietako bat sektoreak iaz berritutako lan hitzarmenean eguneraturiko prezioak dira, langileek soldatak hamar urtez izoztuak izan ostean.

Soldata igoera

Udal langileen soldatak hobetzea ere onartu zuen aho batez udalbatzak iragan uztailearen 24ko osoko bilkuran. Zehazkiago esanda, %2ko igoera. Administrazio publikoko langileen soldaten gorabeherak Espainiako Aurrekontuen Legeak zehazten ditu eta aurtengorako %2ko igoera aurreikusitako zuten. Euskadiko Udalen Elkartek ere (EUDEL) ere ehuneko bera aplikatzea aholkatu du. Proposamen hauxe eraman zuen udal gobernu taldeak, azkeneko osoko bilkurara eta aho bateko



Oiarde kiroldegiari lotutako bi zerbitzuren kontratazioa bideratzen hasten erabaki zuten uztaileko osoko bilkuran.

onespene eman zioten. "Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak", ohartarazi zuten. Urte amaierarako, bestalde, ez dute baztertzen %0,5eko igoera erantsen, azken urteotan egin duten moduan.

Legealdiko Plana betetzen

120 neurriko 2023-27 legealdiko lehen urtearen balantzea plazaratu du udal gobernu taldeak. Lehen urtea igarota, "28 neurri bete (%23) eta beste 38 martxan jarri (%31)" dituela berri eman dute. Haieetatik honako hauek nabarmendu dituzte:

- Misioen baitako gobernantza eredu osatzeko prozesua martxan da.
- Trantsizio ekosozialaren herri misioa adosteko parte-hartze prozesua egin da, misioak lortzeko proiektu

JARDUERA FISIKOA ETA UR SOROSPEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTU ZUTEN

eraldatzaileak zehaztearekin batera.

- Energiaren bulegoa ireki eta efizientzia energetikoan urratsak egiten ari dira.
- 650 Usurbil Bizi proiektua garatzen ari dira, besteak beste, Zumetaren 50. urteurrenoko egitarauarekin.
- Herriko ura ahalik eta etxe gehienetara iristeko lanak egin dira.
- Elkargunearen proiektua definitzeko parte-hartzea abiatu da.
- Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa zabaldu da, eta zaintza ereduaren eraldaketan urrats kualitatiboak egiten ari dira, zaintza plan pertsonalizatuak eskaintzeko.
- Ikasgela zabaldu dute, azterketa garaierarako.
- Etorri berrien edota egoera zaurgarrian egon daitezkeen herrikideen integrazio komu-

UDAL LANGILEEN SOLDATAK HOBETZEA ERE ONARTU ZUEN AHO BATEZ UDALBATZAK

nitarioa sustatzeko mentoretza sozialerako HarEman egitasmoa martxan jarri da.

- Pelaiotena ireki dute: Kalezarreko auzo ekipamendua eta Emakumeen Etxea.
- Udal haur eskolaren eredu zehaztu, lizitazio berria burutu, eta eraikina berritzeko prozesua martxan da.
- Usurbil tentsio handiko eremu izendatzeko prozesua abiatu da.
- Kiroldegiko ordutegia zabaldu dute.
- Mugiment sarearekin bat eginda, herritarrek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kiroldegia erabiltzeko aukera dute.
- Ibaiertzeko eremua zabaldu eta oinezko loturak hobetu dituzte Zumartekin.
- Aginagan: Elutx bidea egin, haur parkea berritu eta Eliza Zaharreko konponketak bideratzen ari dira. Aginaga Biziberritzen sustapen taldearekin mahai iraukorra osatu dute.
- Etxealdiko irisgarritasun plana gauzatzeko, San Esteban kalea oinezkotu eta Etxealdia eta Kale Nagusia lotuko dituen igogailuarekin lanean hasi dira.
- N634ko autobus geltoki berriak eta Egurtzegi eta Kalezar lotuko dituen igogailuaren obrak amaitu dituzte.

Santuenea, aurtengo azkenaurreko festen atarian

Astebete barru egingo diren festen atarian da auzoa. Jaien egitaraua prest dute jada.

Festen aroa azken txanpan murgiltzera doa. Izan ere, urrian ospatuko diren Aginagako jaien aurretik, ohi bezala, Santueneko txanda izango da irailaren 20tik 22ra. Bertako jai batzordeak osatua du hiru egunotarako ospakizunen egitaraua. Haurrentzako tailerrak, jan-edana nahiz dj gauek girotuko dute asteburu hori, zenbait txapelketekin eta auzotar nahiz bisitariak batuko dituzten lagunarteko otorduekin batera.

Deialdiak

Kontuan hartzeko jaiari begirako zenbait ohar segidan. Batetik, 12 urtera arteko haurrek eginiko marrazkien erakusketa iragarri dute jaietan.

"Ekarri zure marrazkia txoznara jaietan zehar", egin dute gonbita. Parte hartzaile guztientzat oparixo bana iragarri dute festen amaieran, hilaren 22an 20:45ean egingo den sari banaketan. "Marrazkiaren atzeko aldean izen-abizenak eta adina idatzi", ohartarazi dute antolatzaileek.

Horrez gain, kontuan izan, bi izen-emate deialdi; batetik, mus txapelketarako, lehia aurretik bideratuko dutena, hilaren 21ean, 15:30-16:00 artean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Sari ugari iragarri dituzte: bi txapel, bi lagunentzako afaria Aialde Berrin, bina zentollo, txuleta eta botila txakoli txapelduntzat; bi trofeo, lau



Haurrentzako ekitaldi eskaintza zabal iragarri dute Santueneko jaietarako.

txuleta, ondo otar bat eta bi botila txakoli bigarren sari-tuentzat; lau kilo sahieski, bi

gazta erdi eta bi botila txakoli hirugarren sari-tuentzat; eta bi baserriko oilasko eta bi botila txakoli laugarren sari-tuentzat.

Ez ahaztu, bestalde, salgai izango dituzuela hilaren 22ko auzo bazkarirako txartelak, alde aurretik, Santueneko jubilatuen elkartean eta Tragoxkan, baita Artzabalen ere.

HAURREK EGINIKO MARRAZKIEN ERAKUSKETA ANTOLATUKO DUTE

Santueneko jaiak, egitaraua

Irailak 20, ostirala

- 16:00 Ur jolasak.
- 17:00 Txupinazoa.
- Ondoren, globo gerra.
- 18:00 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
- 18:30 Burrunbazale txaranga, poteoa. Buruhandiak.
- 21:00 Auzotarren afaria.

"Ekarri afaria eta sagardoa gure kontu".

- 23:00 Dj Lila. "Ondoren, txoznan jarraituko dugu festa goizaldera arte".

Irailak 21, larunbata

- 10:00 Puzgarriak.
- 12:30 Buruhandiak.
- 14:00 Haurren bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).

- 16:00 Mus txapelketa (izen-ematea: 15:30-16:00).
- 16:00 Apar festa.
- 17:30 Txokolatada Tragoxkan.
- 18:00 Burrunbazale txaranga eta buruhandiak.
- 19:00 Sardin-jana.
- 21:00 Dj Lila.
- 00:00 Dj Gaua: Dj Fantasia, Hazas Ft Jagoba, Chuchamba.

Irailak 22, igandea

- 09:00 Esnadeia Jon&Jon.
- 11:00 Umeen tailerrak.
- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketako txoznan.
- 12:00 Zantantzarrak.
- 14:00 Auzo bazkaria. Ondoren, bingoa. (Entsalada,



Auzo bazkarirako tiketak Zaharren Egoitzan, Tragoxkan eta Artzabalen salgai.

oilasko errea, postrea eta edaria. Tiketak Zaharren Egoitzan, Tragoxkan eta Artzabalen.)

- 18:00 Buruhandiak.
- 18:30 Etxebarria aita-semesterikitaliak.

- 19:00 Piper dastaketa.
- 20:45 Sarien banaketa.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta beza-la erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647742588

Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari bila. Garrantzitsua esperientzia izatea. 670654272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gorpildun aulkia salgai, berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Interesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Emakumeen Etxea	943 377 112	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroledegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Egurtzergi zentroa (Kalezar)	943 300 563	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 12	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 13	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 14	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 15	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astearte, 17	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteazkena, 18	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Osteguna, 19	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 20	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 22	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURI ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berrí, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK



Maria del Carmen Calvo De Santamartina
Irailaren 7an hil zen, 60 urterekin.

Eskubaloia

Irailak 14 larunbata

10:00 Kadete mutilak

-Usurbil K.E.

-Pulpo

12:00 Senior mutilak. Euskal Kopa:

-Usurbil K.E.

-Leizaran

Irailak 15 igandea

11:00 Kadete neskek

Pilota partidak

Irailak 13, ostirala, Usurbilen, 18:30

Gipuzkoako binakako

eskuzko txapelketa:

Kadeteak 3. Mailan:

- Pagazpe (Indakoetxea-Jauregi)

- Oiarpe

Jubenilak, 2. Mailan:

Pagazpe - Oiarpe

Jubenilak, 2. Mailan:

Pagazpe - Aloña

Irailak 13, ostirala, Aginagako frontoian, 21:00

Gipuzkoako Paleta Gomaz

binaka, 2. Mailan:

- Pagazpe (Errasti-Salegi)

- Mundarro 2

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 14

USURBIL 'Usurbil, museo irekia' bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00etan Sutegitik.

OSTIRALA 20

SANTUENEA Jaiak

16:00 Ur jolasak.
17:00 Txupinazoa.
Ondoren, globo gerra.
18:00 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
18:30 Burrunbazale txaranga eta poteoa. Ondoren, buruhandiak.
21:00 Auzotarren afaria. Ekarki afaria eta edan nahi duzuna.
23:00 DJ Lila.
03:30 Auzoko Djak eta karaokea.
Antolatzailea: Santuenako Jai Batzordea.
Egitarau osoa 16. orrialdean.

LARUNBATA 21

SANTUENEA Jaiak

Egitarau osoa 16. orrialdean.

IGANDEA 22

SANTUENEA Jaiak

Egitarau osoa 16. orrialdean.



Larunbat honetako bisita gidatua Sutegitik abiatuko da, eguerdiko 12:00etan.

Herrian ditugun harribitxiak ezagutzeko aukera berri bat

Jose Luis Zumetaren murala ikusgarria eta txoriak; Remigio Mendibururen 'Udarregiri omenaldia' eskultura; Irantz Lekue, Judas Arrieta eta Axpiren muralak, ... Aditu baten laguntzaz ezagutu ahalko dituzu artelan hauek

guztiak ordubeteko bisita gidatuan.

Irailak 14 larunbata

- Irteera, 12:00etan Sutegitik.
- Aurrez eman behar da izena turismoa@650usurbilbizi.eus eposta helbidera idatziz.

Oiardo kiroldegiko ikastaroetan izena emateko garaia da

Oiardo Kirolegiak prest du 2024-2025 ikasturterako ikastaroen eskaintza. Irailaren 16ra arte egongo da izena emateko epea zabalik. Azken urteetan egin bezala, Internet bidez izango da izen-ematea, galde-tegi bat beteta. Izen-emateak eskainitako plaza kopurua gainditzen duen kasuetan, zozketa egingo da: behar izatekotan, irailaren 17an bertan egingo da.

Bisita gidatu ugari

Irailak 14 larunbata

- 'Usurbil, museo irekia' bisita gidatua. Irteera, 12:00etan Sutegitik. Euskaraz.

Irailak 26 osteguna

- 'Zero Zabor' bisita gidatua.
- 10:00 Udaletxetik.

Irailak 27 ostirala

- 'Zaintzaren Usurbil' bisita gidatua.
- 10:00 Txirikordatik.

Irailak 28 larunbata

- 'Salvatore Elizaren ondarea', bisita gidatua.
- Irteera, 12:00etan Salvatore elizan.

Oharra: Bisita hauetan parte hartzeko, aurrez eman behar da izena: turismoa@650usurbilbizi.eus

"Xumetik" Eguna gogoan

Iaz ospatu zen jaialdia bideo emanaldi baten bidez gogora ekarriko dute irailaren 27an ostirala, gaueko 22:00etan Sutegin.

Otar-Goxo
Elizakgaitiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

Kima
MASAJE LEKUA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

- KIROL MASAJEA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- KOLONAREN HIDROTERAPIA

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiarrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

OSASUN GIDA

MABIOK FISIOTERAPIA

Ekografietan, terapia inbasiboetan eta eskuzko terapietan adituak



Alperro Buru kalea 1, Bsb (20170)
T. 608 671 925 / 943 372 659
Sare sozialak: mabiok_fisioterapia
Webgunea: mabiokfisioterapia.com

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA



Fisioterapia Pilates terapeutikoa

Osteopatia Psikologia

Haurdunaldia Zoru pelbikoa

943 53 92 66
623 46 26 58

irati.ibargoien@gmail.com

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

[@irati_ibargoien_fisioterapia](https://www.instagram.com/irati_ibargoien_fisioterapia) www.iratibargoien.com

zenta



ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatuak.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin hitzarmena

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA



Fisioterapia Pilates terapeutikoa

Osteopatia Psikologia

Haurdunaldia Zoru pelbikoa

943 53 92 66
623 46 26 58

irati.ibargoien@gmail.com

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

[@irati_ibargoien_fisioterapia](https://www.instagram.com/irati_ibargoien_fisioterapia) www.iratibargoien.com



USURBIL
OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

Bizi-Sena

Neuroenergetika terapiak nervio sistema orekan jartzea laguntzen du, lasaitasuna lortze gure buirmuñean eta gorputzean

www.bizisena.es
Karolina Lekuona info@bizisena.es
674 804 913 Santuenea 26 3^a Eskubi (Usurbil)

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/22 P.E.Z.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO



747 486 835



publizitatea@noaua.es

ANIMA ZATTEZ,
ZURE ZAIN
EGONGO GARA!



Datorren Irailaren 21an,
Larunbata, goizeko 11etan

Usurbilgo Alkartasuna
Baserriaren Kooperatibaren atarian
sagar muztioa egiteari ekingo diogu.

Gure helburua, familia eta lagunartean etxeko
muztioa egitea da, ondoren dastatzeko.

Muštioa egiten ikasteaz gain, etxean egin ahal izateko
tresneriaren erabilera errazaz jabetuko gara.

Gero bakoitzak etxean bere sagarrekin muštioa
egiteko beharko duena ikasiko du.

